

## Montehermosok ‘MAZOKA’ Ilustrazioaren I. Jardunaldi Profesionalak hartuko ditu

- **Hizlarien artean Elena Odriozola nabarmentzen da, 2015ean Ilustrazio Sari Nazionala jaso zuena**

**Ilustrapados en Araba** elkarteak, Gasteizko Udalarekin batera, ‘MAZOKA’ Ilustrazioaren I. Jardunaldi Profesionalak antolatu ditu. Hogei pertsonak goi mailako bi profesionalen maisu-eskola bat eta hitzaldi espezializatuak jaso ahalko dituzte doan: **Elena Odriozola**, 2015eko Ilustrazio Sari Nazionala, eta **Gustavo Puerta Leisse** literatur kritikaria. Lehen jardunaldi profesionalak MAZOKA marrazki eta ilustrazioaren II. edizioaren atarikoak izango dira, eta abenduaren 14an eta 15ean izango dira.

‘MAZOKA’ Ilustrazioaren I. Jardunaldi Profesionalak profesionalentzako tailer gisa antolatu dira, eta prestakuntza espezializatu eskainiko da: **maisuek, lantegiak eta goi mailako bi profesionalen hitzaldiak**, herritar orori zuzenduak.

### “MAZOKA” ILUSTRAZIOAREN I. JARDUNALDI PROFESIOALEN PROGRAMA

**“GERUZEN BITARTEZ KONTATU” maisu eskola, Elena Odriozola (2015eko Marrazkigintzako Sari Nazionala) eta Gustavo Puerta Leisseren eskutik.** Abenduaren 14 eta 15ean, 10:00etatik 14:00etara, Gasteizko Montehermoso kulturunean.

Parte hartzaileak izan daitezke ilustratzaile profesionalak zein hasi berriak edo ikasleak, bai bertakoak edo estatukoak, baina derrigorrezkoa da ezagutzak eta marrazketa eta ilustrazioari buruzko oinarriko gaitasunak izatea.

Odriozola eta Puertaren eskoletan parte hartu ahal izateko baldintzak [www.ilustrapados.org](http://www.ilustrapados.org) eta [www.mazoka.org](http://www.mazoka.org) web-orrietan argitaratu dira; interesdunek azaroaren 18ra arte dute eskabidea egiteko.

**Elena Odriozolaren txostena: “Edward santua, babes nazazu”.** Abenduaren 15ean, 19:00etan, Montehermoso kulturunean. Sarrera librea, lekuak bete arte.

**Gustavo Puerta Leisseren txostena: ‘Ilustratzen ari ez dena’:** Abenduaren 15ean, 20:00etan, Montehermoso kulturunean. Sarrera librea, lekuak bete arte.

Elena Odriozola (Donostia, 1967). 2016ko urrian, Espainiako Haur eta Gazte Libururako Elkartek (OEPLI) Espainiako hautagai izendatu du **Han Christian Andersen 2018** sarirako ilustrazioaren kategorian, zeina generoaren Nobeltzat jotzen baita.

Besteak beste, Odriozolak sari hauek jaso ditu: Ilustrazioaren Sari Nazionala 2015ean, eta Bratislavako Ilustrazioaren Biurtekoko Urrezko Sagarra, “Frankenstein” ipuinarengatik.

Horretaz gain, **“Geruzak, orbanak,antzokitxoak, mugimenduak, siluetak, tirak eta gainerako tramankuluak”** erakusketa ikusi ahalko da “MAZOKA” Ilustrazioaren I. Jardunaldi Profesionaletan, haren ibilbidearen laburpena. Hartara, MAZOKA marrazki eta ilustrazioaren azoka sortzeko helburua sendotzen jarraituko da: estatu mailan Gasteiz erreferentzia bihurtzea ilustrazioaren profesionalentzat zein zaleentzat, bai eta horretan interesa duten erakunde edo enpresentzat ere.

**MAZOKA** Montehermoso kulturuneko garai bateko ur-biltegian egingo da berriro, abenduaren 16, 17 eta 18an. Erakusketa bisitatzeko duenak prezio onean aurkitu ahal izango ditu bertako ilustratzaileen, marrazkilarien eta ikusmen-artisten lanak. Orobat, jarduera paralelo ugari izango da; laster emango da horren berri.

Ilustrazioaren I. Jardunaldi Profesionaletan izena emateko: [mazoka@ilustrapados.org](mailto:mazoka@ilustrapados.org) (azaroaren 18ra arte).

## Montehermoso acogerá las I Jornadas Profesionales de Ilustración “MAZOKA”

- Entre los ponentes destaca **Elena Odriozola, Premio Nacional de Ilustración en 2015**

El colectivo **Ilustrados en Araba** ha organizado con el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz las **I Jornadas Profesionales de Ilustración “MAZOKA”**, en las que veinte personas podrán disfrutar de manera gratuita de una masterclass y ponencias especializadas con profesionales de la talla de **Elena Odriozola**, Premio Nacional de Ilustración en 2015, y el crítico literario **Gustavo Puerta Leisse**. Estas primeras jornadas profesionales, planteadas como una actividad previa a la II edición del Mercado de dibujo e ilustración MAZOKA, se llevarán a cabo los días 14 y 15 de diciembre.

Las I Jornadas Profesionales de Ilustración “MAZOKA” se estructuran como un atelier para profesionales con formación especializada a través de **clases magistrales, talleres, y conferencias de dos ponentes de renombre** en el sector abiertas al público y a la ciudadanía en general.

### PROGRAMA I JORNADAS PROFESIONALES DE ILUSTRACIÓN “MAZOKA”

**Masterclass “NARRAR por CAPAS”, impartida por Elena Odriozola y Gustavo Puerta Leisse** . 14 y 15 de diciembre de 10h a 14h, Centro Cultural Montehermoso.

Los participantes pueden ser tanto ilustradores profesionales como noveles o estudiantes, locales o nacionales, pero han de tener necesariamente conocimientos y competencias básicas en dibujo e ilustración.

Las condiciones para poder postular a las clases de Odriozola y Puerta están publicadas en la web del colectivo [www.ilustrados.org](http://www.ilustrados.org) y del evento [www.mazoka.org](http://www.mazoka.org) y los interesados tienen hasta el 18 de noviembre para hacer la solicitud.

**Ponencia Elena Odriozola, “Santo Edward, protégeme”**. 15 de diciembre 19h, Centro Cultural Montehermoso. Acceso gratuito hasta completar aforo.

**Ponencia Gustavo Puerta Leisse, “Lo que no se está ilustrando”** . 15 de diciembre 20h, Centro Cultural Montehermoso. Acceso gratuito hasta completar aforo.

Elena Odriozola (San Sebastián, 1967) ha sido seleccionada recientemente, en octubre de 2016, por la Organización Española para el Libro Infantil y Juvenil (OEPLI) como candidata por España, en la categoría de ilustración, al **premio Han Christian Andersen 2018**, considerado el “Nobel” de este género.

Odriozola cuenta, entre otros, con el Premio Nacional de Ilustración de 2015 así como la “Manzana de oro” de la bienal de ilustración de Bratislava por el cuento “Frankenstein”.

Además de presencia de esta Premio Nacional de Ilustración, las **I Jornadas Profesionales de Ilustración “MAZOKA”** contarán con la exposición **“Capas, manchas, teatrillos, movimientos, siluetas, tiras y demás trastos”** un recorrido sobre toda su trayectoria. De este modo, continúa asentándose el objetivo con el que nació el Festival MAZOKA, Marrazki Azoka, 2ºMercado de Dibujo e Ilustración: hacer que Vitoria-Gasteiz se asiente como un punto de referencia a nivel estatal tanto para profesionales de la ilustración como aficionados o entidades y empresas interesadas en el mundo de la ilustración.

**MAZOKA** volverá a celebrarse este año en el Antiguo Depósito de Aguas del Centro Cultural Montehermoso los días 16, 17 y 18 de diciembre de 2016. Una vez más, el visitante podrá encontrar a precios asequibles el trabajo de los ilustradores, dibujantes y artistas visuales presentes. Igualmente, habrá un importante bloque de actividades paralelas que serán presentadas próximamente.

Contacto e inscripciones en las I Jornadas Profesionales de Ilustración en: [mazoka@ilustrapados.org](mailto:mazoka@ilustrapados.org) (hasta el 18 de noviembre)